

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea onura publikoko 311 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari**

Jendaurrean jartzeko arauzko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, iragarkia 2019ko abenduaren 18ko ALHAOn (145. zk.) argitaratu zenetik, behin betiko onetsi da "Kukuma, Iturrioz eta Aiondo" onura publikoko 311 mendietan fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren 8. artikulua aldatzeko espedientea. Hau da, hitzez hitz, onartutako aldaketaren edukia:

#### **OPko 311 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza**

Zerga kuota

##### **8. artikulua**

1. Ondoko kuota hauek ezartzen dira OPko 311 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua egiteko, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera. Aprobetxamendutzat zera hartzen da: perretxikoak, fruituak, landareak eta loreak biltzea, kontsumitzeko edo komertzializatzeko.

a) Zazpigarren artikuluko 1.1 puntuan sartutako pertsonen denboraldiko baimen bat eskuratu beharko dute udaletxean, udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren entitate laguntzaileetan, eta denboraldiko 6,00 euro ordaindu beharko dute.

Denboraldiko baimen hori baliouduna izango da OPko 311 mendirako eta, hala dagokienez, hitzarmen eta ordenantza egokien arabera sor daitekeen esparru bakarraren barruan sartutako mendi guztietarako.

b) Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikatuko zaie, baita ere, 1.2 puntuaren barruan sartutako pertsonen, baldin eta OPko 306 mendia, "Apota eta Ubarrundia" izenekoa, hitzarmen eta ordenantza egokiaren arabera sor daitekeen esparru bakarraren barruan badago.

c) 1.3 puntuaren barruan sartutako pertsonen baimen berezia eskuratu beharko dute, alka-teak edo berak eskuordetzen duen zinegotziak berrikusia.

d) Zazpigarren artikuluko 2. puntuan sartutako pertsonen udalak emandako eguneko baimen bat eskuratu beharko dute udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren entitate laguntzaileetan. Horren prezioa pertsona eta egun bakoitzeko 5,00 euro izango da. Era berean, asteko abonuen gisako baimenak emango dira, pertsona bakoitzeko 22,00 euroko prezioa izango dutenak, eta denboraldi guztirako abonuenak ere, pertsona bakoitzeko 52,00 euroko prezioa izango dutenak.

2. Aprobetxamendu kuota, dagozkion baimenak eskatzen eta eskuratzen direnean sortuko da.

3. Aprobetxamendu kuota ordaindu beharra duten subjektu pasiboak perretxikoen, fruituen, landareen eta loreen aprobetxamendurako baimenak ematen zaizkien pertsonak izango dira, edo, baimen egokirik gabe arituz gero, aprobetxamendutik onura hartzen dutenak.

Erabaki hori behin betikoa izango da administrazio bidean. Beraz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako bi hilabeteko epea egongo da, erabakia argitaratu eta biharamunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Halaber, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoari zuzendua. Horretarako hilabeteko epea egongo da erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hori guztia gorabehera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.

Araia, 2020ko otsailaren 4a

*Alkatea*

*CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ*